

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Iragarkia

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko azaroaren 4an, erabaki hau hartu zuen:

Aurrena. Oposizio-lehiaketa sistema bidez ofizial elektrikari bi lanpostuen hautaketa-prozesuaren deialdia onartzea.

Bigarrena. Deialdiaren Oinarriak onartzea.

Hirugarrena. Oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN OSORIK argitaratzeko erabakia hartzea.

Oposizio-lehiaketa sistema bidez ofizial elektrikari 2 lanpostu betetzeko eta lan poltsa sortzeko deialdiaren Oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea.

Deialdiaren xedea da Eibarko Udaleko lan-kontratuko langileen plantillan hutsik dauden 2 ofizial elektrikari-lanpostu lehiaketa-oposizio irekiaren bidez jabetzan betetzea.

– **Izena:** Ofizial elektrikaria.

– **Sailkapen taldea:** C2.

– **Udalhitz maila:** 9.

– **Destino osagarria:** 19.

– **Osagarri espezifikoa:** 12.913,90.

– **Dedikazio-ozagarria:** % 20a.

– **Titulazioa:** LH1 edo baliokidea.

– **Baldintza bereziak:** C1 gidabaimena.

– **Plaza kopurua:** 2.

– **Euskara:** 1. hizkuntza eskakizuna (ez da derrigorrezkoa).

Oposizio probak gaintu arren plazarik lortu ez duten izangaiek zerrenda bat osatuko dute, eta zerrenda hori lanpostu berdinetan edo antzekoetan dauden langileen behin-behineko beharrak betetzeko erabili ahal izango dira.

Bigarrena. Lan baldintzak.

Lanaldia osoa izango da, eta Udalak adosten dituen ordutegia eta egutegia izango ditu, lanpostuaren izaeraren eta behar espezifikoaren arabera.

Hirugarrena. Funtzioak.

Lanpostuaren funtzioak, besteak beste, honako hauek izango dira (behin-behinekoak, onarpenaren zain):

– Mantentze lanak egitea, matxurak konpontzea eta zaharbertzeko lanak egitea argiteria publikoan nahiz udal eraikinetako instalazio elektrikoetan.

– Udal azpiegitura elektrikoak mantentzeko, kontserbatzeko eta konpontzeko lanak egitea.

– Instalazio elektriko berriak jartzeko beharrezko eragiketak egitea, definitutako zehaztapen teknikoaren arabera.

– Telekomunikazio-sareak mantentzeko eta eraberritzeko lanak egitea.

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Anuncio

En la Junta de Gobierno de 4 de noviembre de 2024 se ha adoptado el siguiente acuerdo:

Primero. Aprobar la convocatoria de proceso selectivo de dos plazas de oficial/a electricista por el sistema de concurso-oposición.

Segundo. Aprobar las Bases de la convocatoria.

Tercero. Acordar la publicación de las Bases íntegras en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Bases de la convocatoria para la cobertura de 2 plazas de oficial/a electricista por el sistema de concurso-oposición y la creación de una bolsa de trabajo.

Primera. Objeto de la convocatoria.

El objeto de la convocatoria es la cobertura en propiedad mediante el sistema de concurso-oposición libre, de 2 plazas de Oficial/a Electricista vacantes en la plantilla de personal laboral del Ayuntamiento de Eibar.

– **Nombre:** Oficial electricista.

– **Grupo de clasificación:** C2.

– **Nivel udalhitz:** 9.

– **Complemento de destino:** 19.

– **Complemento específico:** 12.913,90.

– **Complemento de dedicación:** 20 %.

– **Titulación:** FP1 o equivalente.

– **Requisitos específicos:** Carnet de conducir C1.

– **Número de plazas:** 2.

– **Euskera:** Perfil lingüístico 1 (no preceptivo).

Los/as aspirantes que, habiendo superado las pruebas de la oposición, no hubieran obtenido plaza pasarán a conformar una lista que podrá utilizarse para cubrir las necesidades eventuales de personal en puestos iguales o similares.

Segunda. Condiciones laborales.

La jornada laboral será completa, con el horario y calendario que acuerde el Ayuntamiento en base al carácter y necesidades específicas del puesto de trabajo.

Tercera. Funciones.

Entre otras, las funciones del puesto son las que a continuación se detallan (provisionales pendientes de aprobación):

– Realizar los diversos trabajos de mantenimiento, reparación de averías y renovación, tanto de alumbrado público como de instalaciones eléctricas de los distintos edificios municipales.

– Efectuar labores de mantenimiento, conservación y reparaciones en infraestructuras eléctricas municipales.

– Efectuar operaciones correspondientes a la ejecución de nuevas instalaciones eléctricas de acuerdo con las especificaciones técnicas definidas.

– Realizar tareas de mantenimiento y reforma de las redes de telecomunicaciones.

- Sistema domotikoak inplementatzea.
 - Programazioak egitea sistemen kudeaketa adimenduneko proiektuetan (Smart).
 - Mantentze lanak egitea, matxurak konpontzea eta zaharberitzeko lanak egitea instalazio elektriko eta telematikoetan.
 - Jarduerak, festak, ekitaldiak... egiteko beharrezkoak diren azpiegitura prestatzea eta instalazioak egitea.
 - Ekitaldiak direla eta, argiztapeneko eta soinu muntaia bereziak egitea, espazioa eta eskakizun teknikoak aztertu ondoren.
 - Industria Sailak eskatutako ikuskapenak eta neurketak egitea.
 - Luminariak ordeztzeko araudia betetzea, energia-kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko, eta dirulaguntzetan ezarritako zehaztapenak betetzen saiatzea.
 - Elektrizitatearen arloan aholkularitza ematea lehendik dauden instalazioei edo proiektu berriei dagokienez, bai lankideei, bai laguntzako langileei, bai udal-sailei, bai udalerrian instalazioak, lanak eta abar egingo dituzten enpresei eta kanpoko langileei.
 - Bere kategoriarik dagokion beste edozein zeregin egitea, baldin eta alde aurretik horretarako prestakuntza jaso badu.
- Laugarrena. Hautagaien baldintzak eta eskakizunak.*
- Onarpenerako eta, hala badagokio, prozeduran parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:
- a) 16 urte bete izana eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera ez iritea.
 - b) Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak sinatu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioaren ondorioz langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.
- Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideak ere parte hartu ahal izango du, betiere zuzenbidez bananduta ez badago, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, betiere, bi ezkontideak zuzenbidez banandua ez badaude, ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak edo adin horretatik gorakoak badira eta haien kontura bizi badira.
- c) Batxilergoa, LH 1 edo baliokideren bat izatea. Atzerriko titulazioei dagokienez, horiek homologatu izana egiaztatzen duen agiria eduki beharko du hautagaiak.
 - d) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen edo bateraezina den gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea; hori dagokion mediku-azterketaren bidez egiaztatuko da.
 - e) Diziplina-espeditante bidez edozein herri-administrazioetako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatu-organismoetako zerbitzutik berezita ez egotea, eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, ez funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, ez eta lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten antzeko eginkizunak betetzeko desgaitasun absolutu edo berezirik ere, langile horiek berezi edo desgaitu badituzte.
 - f) Ezintasun-kausetan sartuta ez egotea eta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak bateraezintzat jotako jarduerarik ez egitea.
 - g) Baldintza berezia: C1 motako gidabaimena indarrean edukitzea.

- Implementar sistemas domóticos.
- Realizar programaciones en proyectos de gestión inteligente de sistemas (Smart).
- Realizar los diversos trabajos de mantenimiento, reparación y realizar las instalaciones necesarias para la celebración de actividades, festejos, eventos...
- Llevar a cabo la preparación de la infraestructura eléctrica y realizar las instalaciones necesarias para la celebración de actividades, festejos, eventos...
- Realizar montajes especiales de iluminación y sonido con motivo de la celebración de eventos, tras analizar el espacio y los requerimientos técnicos.
- Realizar las inspecciones y mediciones exigidas por el departamento de Industria.
- Cumplir la normativa de sustitución de luminarias para mejorar la calidad y eficiencia energética y procurar el cumplimiento de las especificaciones establecidas en subvenciones.
- Prestar asesoramiento en materia de electricidad en relación con las instalaciones existentes o nuevos proyectos, tanto a compañeros/as de trabajo, personal de apoyo, departamentos municipales así como a empresas y personal ajeno que van a realizar instalaciones, trabajos, etc. en el Municipio.
- Efectuar cualquier otra tarea propia de su categoría que le sea encomendada y para la cual haya sido previamente instruido.

Cuarta. Condiciones y requisitos de los/las aspirantes.

Para la admisión y en su caso, para tomar parte en el procedimiento serán requisitos necesarios:

- a) Haber cumplido 16 años y no haber alcanzado la edad de jubilación forzosa.
 - b) Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.
- También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintinueve años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.
- c) Estar en posesión o haber abonado los derechos para la obtención del título de bachillerato, FP I o equivalente. En el caso de las titulaciones extranjeras deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.
 - d) No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida o sea incompatible con el normal desempeño de las funciones propias de la plaza, lo cual se acreditará mediante la revisión médica correspondiente.
 - e) No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleos o cargos públicos por resolución judicial, para el acceso al cuerpo o escala de funcionario, o para ejercer funciones similares a las que desempeñaban en el caso del personal laboral, en el que hubiese sido separado o inhabilitado.

- f) No hallarse incurso en causas de incapacidad y no desempeñar actividades declaradas incompatibles por la Ley 53/1984 de 26 de diciembre.

- g) Requisito específico: disponer de carnet conducir C1 en vigor.

Aurreko baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira. Era berean, prozesu guztian zehar mantendu beharko dira izendapenaren unera arte.

Epaimahaiak, probak egiteko denbora- eta bitarteko-egokitzapen posibleak ezarriko ditu desgaitasuna duten izangaiek hala eskatzen badute. Horretarako, interesdunek deialdian parte hartzeko eskabidean eskaera zehatza aurkeztu beharko dute, eta epaimahaiak eskatutakoa ematea egokia den ala ez baloratu ahal izan dezan, hautagaiak minusbalioetasun-maila kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboak erantsiko du, desgaitasun-maila eragin duten urritasun iraunkorrak modu frogagarrian egiaztatuz.

Bosgarrena. Eskabideak.

Eskaerak eredu ofizial eta normalizatuaren arabera egingo dira. Gainera, lehiaketa-fasean baloratu beharreko merezimenduak alegatzen dituzten izangaiek Curriculum Vitae izeneko eredu ofizial eta normalizatua betez adierazi beharko dituzte. Eskabidea eta Curriculum Vitae-a Eibarko Udalaren web-orrian daude izangaien eskura (www.eibar.eus) «enplegu eskaintza, plaza finkoak» atalean.

Hautagaiak idatziz adieraziko dute bete egiten dituztela Laugarren oinarrian jasotako baldintza guztiak (adierazpen espresoa), eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunari buruzkoak.

Ez dira baloratuko Curriculum Vitae-an behar bezala zerrendatu ez diren merezimenduak.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren arabera ebaluatuko dira merezimenduak.

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabidea, eredu ofizial eta normalizatuaren arabera. Eskaera elektronikoki egiten den kasuetan, eskabide hau elektronikoki beteko da.

b) Curriculum Vitae eredu ofizial eta normalizatuaren arabera alegatutako merezimenduak.

c) Legezko ordezkapenaren kasuan, ordezkapenaren egiaztagiria. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.

d) Desgaitasuna duten pertsonen, ariketak egiteko denborearen nahiz bitartekoen egokitzapenak behar izanez gero, organo tekniko eskumendunak emandako irizpen teknikoak aurkeztu beharko dute, eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren ala ez epaimahaiak balioetsi ahal izan dezan.

e) Izangaiek LH 1 edo balioekideren bat ez badute, titulua erdiesteko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da. Atzerriko titulazioen kasuan, homologatua daudeladioen egiaztagiria aurkeztu beharko da.

5.1. Eskabideak aurkezteko tokiak.

a) Elektronikoki udal webgunean (<https://www.eibar.eus/au/tramiteak/enplegua-beharginen-aukeraketa>): Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@kQ, NAN elektronikoa, lizenpe txartela, etab.).

Administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzera legez behartuta dauden pertsonen kasuan, aurkezpena elektronikoki egingo da.

Todos los requisitos anteriores deberán poseerse el día en que finalice el plazo de presentación de instancias. Asimismo, deberán poseerse todos ellos durante el procedimiento de selección hasta el momento del nombramiento.

El Tribunal establecerá, para los/as aspirantes con discapacidad que así lo soliciten, las adaptaciones posibles de tiempo y medios para la realización de las pruebas. A tal efecto, los/as interesados/as deberán presentar la petición concreta en la solicitud de participación en la convocatoria y, a efectos de que el Tribunal pueda valorar la procedencia o no de la concesión de lo solicitado, el/la candidato/a adjuntará el Dictamen Técnico Facultativo emitido por el órgano técnico de calificación del grado de minusvalía competente, acreditando de forma fehaciente, la/s deficiencia/s permanentes que han dado origen al grado de discapacidad reconocido.

Quinta. Presentación de instancias.

Las instancias se ajustarán al modelo oficial y normalizado. Además, las personas aspirantes que aleguen méritos a valorar en la fase de concurso deberán declararlos cumplimentando el modelo oficial y normalizado denominado Curriculum Vitae. Tanto la instancia como el anexo de Curriculum Vitae se encuentran a disposición de las personas aspirantes en la página web del Ayuntamiento de Eibar (www.eibar.eus) apartado de «oferta de empleo, plazas fijas».

Las personas aspirantes deben hacer constar que reúnen todas y cada una de las condiciones exigidas en la Base Cuarta referidas siempre a la fecha de expiración del plazo de presentación de instancias.

No se valorarán los méritos que no hayan sido debidamente relacionados en el documento Curriculum Vitae.

Los méritos serán evaluados con referencia al último día del plazo de presentación de instancias.

Esta es la documentación que deberá presentarse:

a) La instancia solicitando ser admitido/a al proceso selectivo según el modelo oficial y normalizado. En caso de realizar la solicitud electrónicamente, esta instancia se cumplimentará electrónicamente.

b) Méritos alegados según el modelo Curriculum Vitae oficial y normalizado.

c) En caso de representación legal, acreditación documental de la misma. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...). No será necesario presentar esta documentación en caso de que la representación esté registrada en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

d) En caso de personas con discapacidad que precisen de adaptaciones de tiempo y medios de realización de los ejercicios, dictamen técnico facultativo del órgano técnico competente para que el Tribunal pueda valorar la procedencia o no de la concesión de lo solicitado.

e) En caso de no disponer del título de FP I o equivalente, se deberá presentar justificante de haber abonado los derechos para obtener la titulación. En el caso de titulaciones extranjeras, se deberá acreditar la credencial que acredite su homologación.

5.1. Lugares de presentación de instancias.

a) Electrónicamente en la página web municipal (<https://www.eibar.eus/es/tramites/empleo-seleccion-de-personal>): Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@kQ, DNI electrónico, tarjeta de lizenpe, etc.).

En el caso de personas legalmente obligadas a relacionarse electrónicamente con la administración, la presentación se hará electrónicamente.

b) Aurrez aurreko eskaera: Pegoran, Herritarren Zerbitzura-ko Bulegoan (Untzaga plaza, 1). Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke Pegoran. Hitzordua nola eskatu:

– Udal webgunearen bitartez: <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/aurretiatzko-hitzordua-eskatzea-internet-bidez-pegorara-joateko>.

– Telefonoz: 943.708.400 / 010.

c) Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako edozein lekutan ere aurkeztu ahal izango dira.

d) Posta-bulegoetan ORVE sistemaren bidez. Argibide gehiago: <https://www.correos.es/es/es/particulares/para-el-ciudadano/tramites-con-la-administracion-publica/servicios-orve>.

Hautagaiek eskabidean emandako informazio guztia tratamendu-jarduera batean sartuko da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeko baina ez da erabiliko. Tratamendu-jarduera horren erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortze ari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean aurreikusitakora egokituko dira.

Ofizioz egiaztatu edota espedientean sartuko dira, interesdunak berriaz kontrakoa adierazi ezean, honako baldintza/informazio hauek:

- Nortasun-datuak egiaztatzea.
- Titulazio akademikoak (unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak).
- Hizkuntza-eskakizuna (Euskara).
- Ikastaroen ziurtagiria: IVAPen bidez (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea) egindako eta gainditutako ikastaroen zerrenda.
- Desgaitasun maila.
- Lan-bizitza.
- Gidabaimena.

5.2. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak 20 egun baliოდuneko epean aurkeztuko dira, deialdi honi dagokion iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Egitezko okerrak nabaritzen badira, edozein unetan zuzendu ahal izango dira eskaerak aurkezteko epearen barruan, ofizioz edo interesdunak berak egindako eskariz.

Seigarrena. Izaera pertsonaleko datuak babesteko araudia betetzea.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Langileria Arloa.

Telefonoa: 943.708.405.

Emaila: personala@eibar.eus.

Datu-tratamenduaren xedea: Hautaketa-prozesua kudeatzea eta, ondoren, lan-poltsa sortzea.

Tratamenduaren legitimazioa: urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa; eta martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretua, Estatuko Administrazio Orokorreko langileak sartzeko eta lanpostuak betetzeko eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide-sustapenerako Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Datu pertsonalak eman ezean, ez da hautaketa-prozesuan aurkezterik izango.

b) Solicitud presencial: en Pegora, Oficina de Servicio a la Ciudadanía, sita en Untzaga plaza, 1. Para evitar posibles esperas, se puede solicitar cita en Pegora. Cómo solicitar cita previa:

– A través de la página web municipal: <https://www.eibar.eus/es/tramites/solicitud-de-cita-previa-a-traves-de-internet>.

– Por teléfono: 943.708.400 / 010.

c) Podrán también presentarse en cualquiera de los lugares que determina el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

d) En las Oficinas de Correos mediante el sistema ORVE. Más información: <https://www.correos.es/es/es/particulares/para-el-ciudadano/tramites-con-la-administracion-publica/servicios-orve>.

Toda la información facilitada por el personal aspirante en la solicitud será incluida en una actividad de tratamiento cuyo uso se limitará a la gestión del proceso selectivo. El uso y funcionamiento de esta actividad de tratamiento se ajustará a las previsiones de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales y de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

De oficio se verificarán y/o incorporarán al expediente, salvo manifestación expresa en contra por parte de la persona interesada, los siguientes requisitos/información:

- Verificación de datos de identidad.
- Titulaciones académicas (tanto universitarias como no universitarias).
- Perfil lingüístico (Euskera).
- Certificado de Cursos: Listado de cursos superados realizados a través del IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública).
- Grado de discapacidad.
- Vida laboral.
- Permiso de conducir.

5.2. Plazo de presentación de instancias.

Las instancias se presentarán dentro del plazo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente al de publicación del anuncio correspondiente en el *Boletín Oficial del Estado*.

Los errores de hecho que pudieran advertirse podrán subsanarse en cualquier momento dentro del plazo de presentación de instancias, de oficio o a petición de el/la interesado/a.

Sexta. Cumplimiento de la normativa de protección de datos de carácter personal.

Responsable del tratamiento: Área de personal del Ayuntamiento de Eibar.

Teléfono: 943.708.405.

Email: personala@eibar.eus.

Finalidad del tratamiento de datos: Gestión del proceso selectivo y posterior creación de bolsa de trabajo.

Legitimación del tratamiento: Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco y Real Decreto 364/1995, de 10 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento General de ingreso del personal al servicio de la Administración General del Estado y de provisión de puestos de trabajo y promoción profesional de los funcionarios civiles de la Administración General del Estado.

En caso de no facilitar los datos personales, no puede acceder al proceso selectivo.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, transferitzeko, aurka egiteko edo mugatzeko eskubidea dago. Horretarako, Eibarko Udaleko tratamendu-arduradunari idatzizko jakinarazpena bidali behar zaio helbide honetara: Untzaga plaza 1-20600 Eibar (Gipuzkoa). Eman behar diren datuak: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, egiten den eskaera, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Halaber, izangaiak eskubidea dute datuak lagatzeko emandako baimena kentzeko, eta eskubidea dute baita datu-babesaren arloko Kontrol Agintaritzaren aurrean erreklamazioa egiteko.

Zazpigarrena. Izangaiak onartzea.

Eskubideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda hori egoitza elektronikoa iragarki-taulan eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, zerrenda argitaratu eta 10 egun naturaleko epean egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da automatikoki. Halakorik badago, ebazpen berri baten bidez onartuko edo baztertuko dira, eta, horren bidez, behin betiko zerrenda onartuko da; zerrenda hori, halaber, adierazitako moduan argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da dagokion administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jar daiteke.

Aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean.

Behin betiko zerrendarekin batera, Epaimahai Kalifikatzaileko kideen izendapena argitaratuko da, bai eta oposizioaren lehen ariketa egiteko tokia eta data ere, edo, hala badagokio, informazio hori zein egunetan jakinaraziko den. Epaimahai kalifikatzaileak hurrengo ekitaldiei buruzko informazioa emango du.

Komunikazio guztiak www.eibar.eus egoitza elektronikoa bidez jakinaraziko dira.

Zortzigarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Lehendakaria:

– Antolaketa eta Pertsonal Saileko teknikaria.

Batzordekideak:

– Beste udal bateko ofizial elektrizista.

– Zerbitzuak Saileko teknikaria.

– Brigadako arduraduna edo bere ordezkia.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen proposamenez izendatutako kide bat.

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak euskararen eza-gutza ebaluatzeko proposatutako kide bat.

Idazkaria:

– Pertsonal Saileko karrerako funtzionarioa.

Organo eskudunak hautaprobak kalifikatu behar dituzten epaimahai kideak izendatuko ditu (lehendakaria, idazkaria eta bokalak).

Izendapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira, onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrendarekin batera. Epaimahai Kalifikatzailea honako hauek osatuko dute: kasuan kasuko deialdian parte hartzeko eskatzen den maila akademikoko edo goragoko titulazio akademikoa duten enplegatu publikoek, eta kideen erdiek gutxienez, sartzeko eskatzen den

Derechos: Le recordamos que existen los derechos de acceso, rectificación, supresión, portabilidad, oposición o limitación al tratamiento de sus datos, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar a la siguiente dirección: Plaza Untzaga 1-20600 Eibar (Gipuzkoa), con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Asimismo, le informamos de su derecho a retirar el consentimiento prestado para la cesión de sus datos y que tiene derecho a reclamar ante la Autoridad de Control en materia de protección de datos.

Séptima. Admisión de aspirantes.

Expirado el plazo de presentación de instancias, el Alcalde aprobará la lista provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en el Tablón de Anuncios de la sede electrónica del Ayuntamiento y en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, para que en el plazo de 10 días naturales siguientes a la fecha de publicación en el mismo, puedan presentarse las reclamaciones que se estimen oportunas. La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se produjesen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

Contra dicha resolución podrá interponerse Recurso Contencioso-Administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin perjuicio de que pueda interponerse cualquier otro recurso que se estime procedente.

Con carácter previo, podrá presentarse un recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes.

Junto con la lista definitiva, se publicará el nombramiento de los miembros del Tribunal Calificador, así como el lugar y la fecha para la celebración del primer ejercicio de la oposición o, en su caso, la fecha en la que se dará a conocer dicha información. El tribunal calificador informará sobre los siguientes ejercicios.

Todas las comunicaciones se darán a conocer a través de la sede electrónica: www.eibar.eus.

Octava. Tribunal calificador.

El Tribunal calificador estará compuesto por:

Presidente/a:

– Técnica del Área de Organización y Personal.

Vocales:

– Un/a oficial/a electricista de otro Ayuntamiento.

– Técnico/a del Área de Servicios o persona que la sustituya.

– Responsable de la Brigada o persona que la sustituya.

– Un/una miembro designado/a a propuesta del Instituto Vasco de Administración Pública.

– Un/una miembro designado/a a propuesta del Instituto Vasco de Administración Pública para la evaluación del conocimiento de Euskera.

Secretario/a:

– Un/a funcionario/a de carrera del Área de Personal.

El órgano competente nombrará a las y los miembros del Tribunal que han de calificar las pruebas selectivas (Presidencia, Secretaría y Vocales).

Los nombramientos se publicarán en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, conjuntamente con la relación definitiva de personas admitidas y excluidas. El Tribunal Calificador estará integrado por empleados o empleadas públicas con titulación académica de nivel igual o superior al exigido para tomar parte en la convocatoria respectiva y al menos la mitad de los vocales, una titula-

jakintza arlo bereko titulazio bat. Kideetako bat IVAPek proposatuta izendatuko da, euskara-proba baloratzeko aukeraz gain.

Epaimahaiaren edo hautaketa-organo teknikoaren osaerak orekatua izan behar du gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean, salbu eta behar bezala justifikatzen bada ez dela egokia. Ordezkaritza orekatzat joko da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkaritza duenean; gainerakoetan, bi sexuak ordezkatuta daudenean.

Epaimahaiak bildutako kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik, ez baitu boto-eskubiderik izango. Berdinketa gertatuz gero, epaimahaiko presidentearen botoak erabakiko du.

Komenigarritzat jotzen bada, epaimahaikideekin lankidetzan arituko diren aholkulari espezialistak sartzea erabaki ahal izango du epaimahaiak, eta aholkulari horiek beren espezialitate teknikoak baino ez dituzte beteko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 81.9 artikulua araberak, lehiaketa-oposizio prozesuaren edozein alderdiri buruzko iritziz tekniko profesionala eman dezaten. Pertsona horiek ez dute boto-eskubiderik izango.

Epaimahaiko kideek abstenitu egin beharko dute, edo errefusatu egin ahal izango dira, artikulua hauetan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen badira. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikulua.

Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikulutik 18. artikulura bitartean zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduna. Nolanahi ere, lehendakariaren aginduz, hautaprobak hasi baino behar beste lehenago bilduko da, eta baliozko eraketarako beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria (edo haien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak bertan egotea.

Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo dute, prozeduraren legezkotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatuz.

Era berean, ordenamendu juridikoarekin bat etorriz, oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak ebatziko dituzte, eta deialdi bakoitza behar bezala garatzeko behar diren erabakiak hartuko dituzte, horietan aurreikusi gabeko kasuetarako hartu behar diren irizpideak ezarri.

Hautaketa-prozesuko edozein unetan, epaimahaiak deialdi honetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duten izangaiak daudela jakiten badu, interesdunari entzun ondoren, baztertzeko proposamena egin beharko dio organo eskudunari, eta izangaiak formulatutako zehaztugabetasunen edo faltasutan berri eman beharko dio.

Bederatzigarrena. Oposizio-fasea.

Lehenengo ariketarako deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera, eta azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia adieraziko dira.

Hurrengo ekitaldietarako deialdia eta epaimahaiaren erabakiak Eibarreko udaletxeko iragarki-taulan eta www.eibar.eus webgunean argitaratuko dira.

Oposiziogileek NANA, gidabaimena edo pasaportea eraman beharko dute proba guztietara, epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango baitie dokumentazio hori. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duena hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Epaimahaiak frogan ordena alda dezake. Probak egun berean egitea ere erabaki ahal izango du. Kasu horretan, probak egiten

ción correspondiente a la misma área de conocimientos que el exigido para el ingreso. Uno de los miembros será nombrado/a a propuesta del IVAP, además de la que resultare para valorar la prueba de euskara.

Salvo que se justifique debidamente su no pertinencia, la composición del tribunal u órgano técnico de selección ha de ser equilibrada de mujeres y hombres con capacitación, competencia y preparación adecuada. Se considera que existe una representación equilibrada cuando en los órganos de más de cuatro miembros cada sexo está representado al menos al 40 %; en el resto, cuando los dos sexos estén representados.

El tribunal adoptará sus acuerdos por mayoría de votos de los miembros congregados. Todos los miembros del tribunal tendrán voz y voto, a excepción de el/la secretario/a, que no tendrá derecho a voto. En caso de empate, decidirá el voto del presidente del tribunal.

El Tribunal podrá disponer, si se considera conveniente, la incorporación de asesores/as especialistas que colaboren con sus miembros, quienes se limitarán al ejercicio de sus especialidades técnicas de acuerdo con el artículo 81.9 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de la Función Pública Vasca, para que aporten su opinión técnica profesional sobre cualquier aspecto del proceso de concurso-oposición. Estas personas no tendrán derecho a voto.

Los/las miembros del Tribunal deberán abstenerse o podrán ser recusadas si concurren las circunstancias previstas en los art. 23 y 24 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del sector público, de 1 de octubre.

El Tribunal ajustará su actuación a las reglas determinadas en los artículos 15 a 18 de la ley 40/2015 de Régimen de Jurídico del Sector Público, de 1 de octubre. En todo caso, se reunirá, por orden de su Presidente o Presidenta, con antelación suficiente al inicio de las pruebas selectivas, siendo necesaria para su válida constitución la asistencia del Presidente o Presidenta y Secretario o Secretaria (o en su caso, de quienes les sustituyan), y de la mitad, al menos, de sus miembros.

Los Tribunales actuarán con plena autonomía funcional, velando por la legalidad del procedimiento y siendo responsables de garantizar su objetividad.

Asimismo, de acuerdo con el ordenamiento jurídico resolverán todas las dudas que surjan en la aplicación de las presentes bases, y tomarán los acuerdos necesarios para el buen orden en el desarrollo de cada convocatoria, estableciendo los criterios que deban adoptarse en relación con los supuestos no previstos en ellas.

En cualquier momento del proceso selectivo, si el Tribunal tuviere conocimiento de la existencia de aspirantes que no cumplen alguno de los requisitos exigidos por la presente convocatoria, previa audiencia de la persona interesada, deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por el/la aspirante en la solicitud.

Novena. Fase de oposición.

La convocatoria para el primer ejercicio se publicará junto con la lista definitiva de admitidos y excluidos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, indicando el día, hora y lugar de celebración del examen.

La convocatoria de los próximos ejercicios, y los acuerdos del tribunal, se publicarán en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Eibar y en la página web www.eibar.eus.

Las personas opositoras deberán acudir a todas las pruebas previstas del DNI, permiso de conducir o pasaporte, ya que el tribunal les podrá requerir dicha documentación en cualquier momento. Quién no presente la documentación solicitada, quedará fuera del proceso selectivo.

El tribunal podrá modificar el orden de las pruebas. También podrá decidir realizar las pruebas el mismo día. En ese caso, las

diren heinean ebaluatuko dira. Izangaiak txandaka deitu ahal izango dira, baita egun desberdinetan ere.

